

RAMIRO GONZALEZ BIOETIKAN 'MAGISTER' ETA GINEKOLOGIAN ETA OBSTETRIZIAN ADITUA**«Pertsona izatea prozesu ebolutiboa da; ikasi ahala garatzen da gizakia»**

Mediku iruindarra RSBAP-Euskalerriaren Adiskidearen Elkarteak antolatutako Bioetika III. Jardunaldietan parte hartu du; pertsona izatearen kontzeptuaz, enbrioien estatutuaz, izoztutako enbrioien erabileraz eta bizitzaren etenaldiaz dauden iritziez mintzatu da.

Juanma Sarasola | DONOSTIA

Ramiro Gonzalez Fandos mediku iruindarra Bioetikan *Magister* da Madrilgo Complutense Unibertsitatean. Berebat, Genetikan eta Obstetrizian espezialista dugu. Atzo Donostian izan zen, RSBAP Euskalerriaren Adiskideen Elkarteak antolatutako III. Bioetika Jardunaldietan. Hitzaldia eman ondoren, EGUNKARIARI tartetxo bat eskaini zion, bizitzaren sorkuntzaz dauden iritzi etikoak eta enbrioien estatutua hizpide.

■ **Historian zehar hainbat pentsalarik pertsonaz emandako definizio franko aipatu dituzu hitzaldian. Zuk nola definitzen duzu pertsona?**

Nire idurikotz, pertsona izatea prozesu ebolutibo bat da, hau da, pertsona oro garatzen doa ikasten doan heinean, eta bizitakoa eta ikasitakoa bere egiten du. Ezin da pertsona bat definitu eboluzioaren une zehatz bat soilik kontuan hartuta; emaltzean, jaiotzean... pertsona da, baina pertsona izatea askoz ere prozesu luzeagoa eta aberatsagoa da une zehatz bat baino.

■ **Zeintzuk dira enbrioien inguruan dauden auzi etikorik garrantzitsuenak?**

Beno, lehenik zehaztu behar da bizitza —prozesu ebolutiboa— ernalkuntzaren unean hasten dela; halere, gametoei daramaten karga genetikoak bizitza garraiatzaile dira. Dena den, kontzeptu hauek guziak hain finak eta hain moralak direnez, oso zaila da esatea halako edo bestelako une batean bizitza hasten dela. Bizitza hasten da bizi independentea sortzen denean. Gero eskubide batzuk, balore batzuk... emango zaizkio. Nolanahi ere ez dira berdinak izango; gizaki guziok berdinak gara zuzenbidearen aurrean, baina ez izatez; ezberdintasuna gizakion ezaugarria da.

■ **Eztabaidak izango dira halako gai arantzatsuren gainean, ezta?**

Bai. Espainiako Estatuan moralitate katoliko, apostoliko eta erromatarraren historia luze eta sakona dugu, eta horrek markatu gaitu. Beraz, aurreiritzi ugari

PABLO S. QUIZA

**ENBRIOIAREN ESTATUTUA****ARAZO KOMUNIKATIBOAK**

“Jolastoki bat bezalakoa da. Kontzeptu zientifiko, filosofiko eta etiko batzuk emanda ekiteko eremua mugatzen da. Topagune arrazional bat da»

“Medikuaren eta aita-amen artean prozesu komunikatibo bat egonez gero talkak saihestuko lirateke. Bioetikan bilatzen den ideia elkarrizketa hori funtzionatzea da»

daude zenbait gai —bizitzarena, enbrioienarena...— tratatzeko tenorean. Alabaina, gizarte plural batean bizi garenez, izateko eta azaltzeko arrazoi ezberdinek bere lekua izan behar dute. Adibidez, proposatzen bada bizitza etetea zilegi den, moral kontserbadoreak, katolikoak dio: «Inoiz ez!». Eta galdetu behar genuke: «Zilegi al da Nicolas Perruche frantziarra bezalako pertsona ezindu larri bat —apenas bizi daitekeen— jaiotzen uztea?». Hortxe dago eztabaida, baita enbrioien erabileran ere. Halaber, Genoma Proiektuak beste eztabaida bat piztu du: giza espeziearen jatorri genetikoak eta datu horien erabilera.

■ **Enbrioiei dagokienez, zer gertatuko da Espainian izoz-**

tuta dauden 40.000 enbrioiekin? Legeak dioenez, enbrio horiek, bost urte igarota, deuseztu egin behar dira...

Eztabaida larria da. Kontua da ez dakigula zer gertatuko den enbrio izoztu horiekin. Lagundutako Birsorkuntzarako Batzordea bitan bildu da horretaz hitzegiteko —azken aldiz 1999an—, eta ez dute deliberorik hartu. Nik uste dut enbrio horiek ezin direla hor, dauden moduan utzi... Erabaki bat hartu behar da: horiek deuseztu edo erabili.

■ **Enbrioien estatutuari dagokionez, jarrera aldaketarik edo aurrerapausorik izan al da?**

Ez. Hara, enbrioien estatutua jolastoki bat bezalakoa da. Kontzeptu zientifiko, filosofiko eta

etiko batzuk emanda ekiteko eremua mugatzen da. Futbola-rekin aldera dezakegu: guk zelaia jartzen dugu, eta zuk nahi bezala jokatu. Baina arauak errespetatuta. Enbrioien estatutua topagune arrazional bat da, polemikara eta sutzera eraman dezaketenez eztabaiden aurrean.

■ **Enbrioia dela medio, medikuaren eta gurasoen arteko talkak egoten dira?**

Bai, badira. Halere, ez lukete egon behar. Medikuaren eta aita-amen artean prozesu komunikatibo bat egonez gero talka horiek saihestuko lirateke. Kontzientzia moralek egiten dute talka, baina beste faktore batzuk aintzat hartu behar dira. Bioetikan bilatzen den ideia elkarrizketa hori funtzionatzea da.

OSASUNA**Kolesterolak neuronen arteko loturak egiteko balio duela argitu du ikerketa batek**

Erredakzioa | DONOSTIA

Kolesterolak bere alde ona ere baduela argitu du *Science* agerkariak egin-dako ikerketa batek. Haren arabera, kolesterolak ikaste gaitasunaren eta oroimenaren neuronen arteko loturak errazteko balio du.

Frank Pfeiffer ikerketa horretako zuzendariak emaitza «harrigarria, baina, pozgarria» izan dela dio *Science* agerkariak gaur kaleratuko duen erreportajearen. «Molekula kaltegarri baten alde ona agertu du ikerketak. Substantzia berak funtzio ezberdinak izan ditzakeela frogatzeko balio izan du; funtzio ezberdinak ez ezik, kontrajarriak ere», nabarmendu du Pfeifferrek.

Aitzitik, odolean kolesterol maila handia izatea osasunerako kaltegarri dela dioen ideia aldatzea ez dela komeni gaineratu zuen. Kolesterol maila handiak gaixotasun asko sor ditzakeela gogorarazi zuen Pfeifferrek.

EBk leuzemia mieloidearen kontrako botika merkaturatzeko baimena eman du

Erredakzioa | DONOSTIA

Leuzemia mieloide kronikoaren kontrako botika berria merkaturatzeko baimena eman du Europako Batzordeak (EB). Botika berri horrek *Glivec* du izena, eta aurki izango da eskuragai Europako Bata-suneko herrialdeetan.

10.000 lagunetatik batetik du —EBko 337.500 lagun inguruk— leuzemia mieloide kronikoa, Europako Batzordeak emandako datuen arabera. Oso azkar garatzen den gaitza da gainera, eta medikuek hiru eta bost urteko bizi iraupena ematen diete gaixoei.

Gaitz horren kontrako beste botika batzuk egon badaude, baina datuek oso eraginkorrak ez direla frogatu dute, EBko iturriek jakinarazi dutenez.